



XAPO

2008ko ekaina - 7. alea

Goizuetako
aldizkaria



**Goizuetarrok
adi egon
hementxe dator
eta Xapo VII.ena**



ale honetan



aukibidea

- **Argitaratzailea:** Goizuetako kultur taldea eta Goizuetako Udalaren euskara zerbitzua
- **Diseinua:** Allende Arnaiz
- **Maketazioa:** Igor Astigarraga
- **Laguntzaileak:** Goizuetako, Arano, Leitza eta Aresoko Euskara Zerbitzua

- Nafarroako Gobernua:
- Hezkuntza eta Kultura Departamentua
- Unibertsitatearako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia



- **4-5.....** Zapokantariak
- **6-8.....** Arantxa Loiarde elkarrizketa
- **9-13.....** Lidia Montesinos
- **14-17....** Alaska
- **18-20....** Azaro kulturala 2007
- **21-23....** Eraldaketa soziala, kapitalismo neoliberaletik sozialismora
- **24-25....** Atzera begira 1997
- **26.....** Aimar Olazizola buruz buruko bigarren txapela jantzi zuen
- **27.....** Denborapasak
- **28.....** Zure txanda



Udaberria heldu da, baina eguzkia ez zazpigarren Xapo berriz hemen da

Udaberria ailegatu da, baina ez da nabari. Eguraldi kaxkarra egiten ari du. Udazkenena dela dirudi. Eguzkia nahi badugu kanpora joan beharko al gara? Zorionez, tarteka eguzkia ateratzen da, eta laster igerrilekura eta hondartzara joateko aukera izanen dugu. Udaberriarekin batera Xapo ere heldu zaigu, zazpigarrena jada.

Ale honetan ere, aurrekoan bezala, Goizueta da gai nagusia. Goizuetan eta goizuetarrentzat egindako aldizkaria baita Xapo. Ez du horrek esan nahi Goizuetatik kanpo begiratu behar ez denik, eta hemen ere horrelaxe pentsatzen dugu, baina bertakoa ere zaindu behar da eta geure burua ere ezagutu eta aztertu behar dugu. Herri bati bizirik eusteko bertakoa estimatu behar da, eta estimatzeko ezagutu ere egin behar da. Hori da, besteak beste, aldizkari honen helburua.

Zazpigarren honetan denetik aurkituko duzue, aldizkari irekia egiten ahalegindu gara eta: elkarrizketak, kontakizunak, artikuluak, argazkiak, denborapasak...Goizuetari buruzko jakingarriak...Xaporen zenbaki honetan, hainbat erreportaje ditugu: Alaskako paisaje ikusgarriak Aitor Olaizolak kontautu, Goizuetako errota.



Zapokantariak

Goizutar bat inguruko herri batera joan eta ahoa zabaldu ordu, igerritzen digute nongoak garen.

Zergatik? Gure hitz egiteko moduak zer du berexi? Bertakoak elkartzen gaituena eta besteengandik berexten? Hizkera; hitz batzuk diferente esaten ditugu. Bino, horiek esan gabe ere nabaritzen digute batzuek. Bada gure hizkeran beste ezaugarri bat Goizutako *apok* duguna: kantatu egiten dugu! Zapok udan, euria egin eta gero bezala: *fi-fi!*

Goizutar bakotzak bere erritmo eta tonua dauki. Bino denak pentagrama berean, muga berberen artean eta antzeko gorabeherekin gabiltza, gehienetan. Egoeraren eta parean dagoenaren arabera, egokituz. Bino oinarria bera da.

Doinuak zenbateko inportantzia duen ikusteko, hitz pare hauei erreparatu. Erreparatu eta esan altu. Nola esaten dira? Zein da hitz batetik bestera dagoen diferentzia? Ageri denez, doinuak bi hitzak elkarrengandik berexten laguntzen du!

Fi Fi

fi

fi

Zapok kantátu ítten do!

Zàpok kantátu ítten dute!¹

¹ Gorabeherak erakusten dituen marra honek hitz egitean egiten ditugun doinu igoera eta jeitsierak adierazten ditu, gutxi gorabehera.



1. áña (hagina), àña (adina)

áña àña

2. árra (harra), àrra (≠ emea)

árra àrra

3. arrántza (astoarena), arràntza (kañarekin egiten dena)

arrántza arràntza

4. até, áte (ahate)

até áte

5. basó (oihan), bàso (edalontzi)

basó bàso

6. bóta (oinetakoa), bòta (aditza)

bóta bòta

7. heldúa, heldù da

heldúa heldù da


8. zápok (san do -singularrean-), zàpok (san dute -pluralean-)

zápok zàpok

Argi al duzute zein den zein? Hala bada, berriz ere, doinuak gure hizkerari izaera berexia ematen diola esan dezakegu. Nongoak garen nabaritzeko modukoa.

BA AL TZINIKIN?

- Goizutako azentuak sistema bat du: patroi batzuk ditu, goizuetarren hitz egiteko modua ez da aleatorioa, denak berdin egiten baitugu!
- Patroi horiek Euskal Herriko beste leku gorde bateko azentuaren ezaugarriekin egiten dute bat: Bizkaiko kostaldekoarekin. Dialektologian, elkarrengandik urruti dauden bi lekutan ezaugarri berbera ikusten bada, ezaugarri zahar baten erretoak izan daitezkeela esaten da. Euskal azentu zahararen gordailu ote dira bi hizkera hauek?
- Hori hala bada, euskararen historiako hainbat gertakari ezagutzeko edo frogatzeko balio du Goizutako euskarak.
- Goizutako doinu-azentua suedierarena bezalakoa da.





Arantxa Loiarte

Arantxa Loiarte, 1956ko ekainak 11an jaio zen Goizuetako Errota etxean. Gaur egun eskolako jangelan lanean aritzen da. Antton Mari Etxeberriarekin ezkondua dago eta 26 urteko Mikel eta 20 urteko Maiderren ama da.



Kaixo Arantxa: Goian zure aurkezpena egin dut eta orain pixka bat zure biziari buruz gauzak galdetzerara ekingo diot. Ez da kotileoa e lasai!! Ni oroitzen naiz zuek errotan bizi izan zinatela baino errota martxan zela ez. Zuen jaiotetxea Goizuetan ziren hiru errotetako bat zen, eta azkena itxi zena.

• **Zenbat urte pasa zenituen errotan bizitzen?**

Gure gurasoak ezkondu zirenean orain dela 62 urte, bertan jarri ziren bizitzen, eta etxean bertan jaiotak gara sei anai-arrebak: Jesus Mari, Luis Ignazio, Felix, Pedro Joxe, Joakin eta ni. Gaur egun bost bizi gara, laugarren anaia urte eta erdi zituenean jostaka ari zela irina egoten zen askara erori

eta itto egin zen. Bertan bizi izan gara orain 10 urte arte.

• **Errotan irina egiten zela badakigu, baino nola?**

Errotak bi harri ditu, azpikoa, mugitzen ez dena, eta gainekoa biraka ibiltzen dena. Bien artean artoa txikitu eta **irina** egiten zen. Lan hau uraren indarrez egiten zen. Gure etxera ura Porrostako errekatik etortzen zen. Horretarako etxea baino gottixiago presa izaten da, gero kanal bat eta hortik tubo baten bidez errota azpian zegoen turbinara ura ailegaten zen. Honek bueltak ematen zituen eta ardatz luze baten bitartez goian mugitzen zen harria martxan jartzen zuten. Horrela lan egiten zuten errotak.

Porrostako erreka



Irina egiteko artoa errotak gainean zuen kaxa moduko batera botatzen zen eta martxan jartzen zenean arto alea poliki poliki eroitzen zen. Bi harrien tartean txikittu eta irina aska batera ateratzen zen.

Irin ona egiteko, tarteka errotako harriak "pikatu" egin behar ziren, batzuetan harriaren koxkak gastatuak zeudelako eta bestetan arto hezeak betetzen zituelako. Horretarako dena

eskatu eta goiko harria grua moduko batekin bere lekutik atera eta mailu berezi batekin poliki poliki pikatu egin behar izaten zen. Izan ere artoa txikitzeko harriak lakarra izan behar du erdialdean eta fina bazterretan. Hainbeste buelta eman behar izaten zituenez azkeneko leuna gelditzen zen eta ez zen irin ona egiten. Gainera, beharrezkoa zen arto ona eta lehorra izatera. Jendea arto berria ekartzen

hasten zenean, denak ona eta lehorra zela esaten zuten, baina behin baino gehiagotan sukaldeko lurrean gauez maindire baten gainean zabaldu eta lehortu behar izaten genuen errotara bota baino lehen. Bestela arto hezea edo ongi lehortu gabea bota ezkerro pasta bat eginda gelditzen zen eta ez zuen irinik botatzen. Libratzeko dena askatu egin behar izaten zen.

Lan hori attak egiten zuen, eta gero bera zahartu zenean, nire anaiek, denak ikasi baitzuten.

• **Artoa beharrezkoa, baina nondik lortzen zenuten? Edo zuena izaten zenuten?**

Garai haietan baserritan arto asko egiten zen, eta ez zen arazorik izaten, irina behar zuenak berak artoa ekarri eta irina eramaten baitzuen.

Azken urtetan jendea gehiago etortzen zen irina eroatera eta arazoa izaten genuen bertako artoa lortzeko. Oso desberdina baitzen, irina bertako artoarekin edo kanpokoarekin egina. Dudarik gabe bertakoa hobea!!

• **Nora saltzen zen bertan sortzen zen irina?**

Arto irinaren bila bertako jendez gainera Hernani, Oiartzun, Donostia inguruetatik etortzen zen.


Nik esatera ez dago ongi, baina gure etxeko artoirinak estimazioa izaten zuen.

• **Gaur egun euroa eta Kiloa dira salerosketan erabiltzen ditugun neurriak . Pezeta ere ezagutu dugu, baina ze preziotan eta ze neurritan saltzen zenuten zuek irina?**

Lehen Errua zen erabiltzen zen pisatzeko neurria. Erru bat 21 kilo da. Estraperlo garaian egunean 14 erru (gutxi gora behera 300kilo) arto txikitzen zen.

Artoa ekartzen zuenak, gutxi gora behera %10 utziaz ordaintzen zuen.

Ni oroitzen naiz kiloa hogeitaurora iristen ez zenen. Gerora 115 pezetatan kiloak kobratzen ere denbora luzez egon ginen. Itxi aurretik 200 pezeta inguruan zegoen kiloak.



Errota barrena





Errota etxea

Hasieran eta gaiarekin kobratzen zenean, alegia artoirinarekin, bere hartan eramaten zuten, ateratzen zen bezala. Gero ordea galbaian pasa, zafia kendu eta irina fin fina eramaten zuten. Orduko pisua erabiltzen genuen irina pisatzeko.

• **Errotan ere beste lantoki askotan gertatu den bezala aldaketa nabarituko zen. Gainera zuek bertan bizi zinate. Nola? Non?**

Atta eta amak esaten zuten garai baten errota martxan edukitzen zutela gau eta egun, irin asko egiten zutela. Jendeak taloak jaten zituen beharrez, eta baita aziendak bazkatzeko ere erabiltzen zen. Orduan ez zen orain hainbeste pentsurik izaten.

Esan beharra dago azken urteetan neguan bakarrik lan egiten genuela,

ura gutxi izaten zen eta ongi lan egiteko asko behar! Gainera normalean taloak eguraldi hotzarekin gustorago jaten dira.

• **Ze oroitzen dituzu, errotan bizitzeko zinenekoak?**

Errota martxan jartzen zenean ttiriki-ttarraka etxe guztian nabaritzen zen halako dardari bat. Baina gu ohituta geunden. Irin usain goxo-goxoa ere izaten zen eta ze esanik ez, etxe guztian zabaltzen zen hautsa. Errota martxan zegoen bitartean, garbittuta ere ez zen nabaritzen, berehala zuri zuri jartzen baitzen dena.

• **Noiz itxi zen errota?**

Errotak lan egiteari orain dela 14, 15 bat urte utzi zion, uraren kanala hautsi zenean.

Aldaketa ederra nabaritu zenuen errotatik herrira bizitzera etorri zinateanean ezta. Gainera orain bestelako "Tirriki-tarrakak" sumatuko dituzu, lehen esan dugun moduan eskolako jantokian aritzen baitzara lanean laguntzaile modura.

• **Zein soinu nahiago bietatik?**

Biek oso soinu desberdinak dia, ttikitakok oso oroitzen onak ekartzen dizkit eta oraingok batzutan buruko minak bino beste batzutan oso atseginak dia.

Eskerrik asko Arantxa zuk eman diguzun informazio guzti honegatik. Seguru herritar askorentzat gauza berri asko kontatu dituzula, gaztetxo eta umeentzat noski gehien bat.



Lidia Montesinos

Lidia Montesinos Bartzelonan jaio zen orain 26 urte, baino 4 hilabeterekin Eltxera joan zen bizitzera, gurasoak irakasleak baititu eta lekualdaketa egin zuten (ama Alikantekoa da eta aita Madrilgoa). Eskola eta institutuko ikasketak Eltxen egin zituen. 18 urterekin Valentziara joan zen Filosofia ikastera (3 urtez, 2000-2003), eta gero 2003en Bartzelonara bueltatu zen Antropologia ikasteko. Gaur egun doktoretza egiten ari da.

Lidia Bartzelonako Unibertsitatean Gizarte antropologian lizentziatua da eta gaur egun unibertsitate berean doktoretza egiten ari da. Goizuetara bere lehenengo ikerketa lana egitea etorri zen, honela ikasketa aurreratuen diploma lortzeko. Honek aukera emango dio bere lanarekin jarraitu eta doktoretza tesia lantzeko.

Bere ikasketaren gaia Goizueta osatzen duten nortasun /identitate ezberdinen faktoreen analisi edo azterketan oinarritzen da. Hau eguneroko bizitza, ohitura juridikoak, mantenu ekonomikoa lortzeko moduak (baserrietako ekonomia eta bere garapena), hizkuntza, aldarrikapenak eta honek sortzen dituen erlazioak, herriko jai ezberdinak etab. aztertuz lortzen da.



"Goizuetar maiteak"

Goizuetan pasa nuen denboraldiaren bukaeran, Goizuetako kultur taldekoak Xapo aldizkarian parte hartu nahi nuen galdetu zidaten. Nola? Nik herrian bizitako esperientzia kontatuz. Hala esan zidaten "jendeak kuriositatea izango du nor zaren jakiteko, zertara etorri zaren ...". Agian denak ez nauzue ezagutuko, nahiz eta azkeneko 6 hilabete hauetan hemen bueltaka ikusi. Goizuetara antropologa eta euskara ikasle bezala iritsi nintzen, Unibertsitateko nire ikerkuntza proiektua garatzeko. Goizuetan bizitzen jarri nintzen. Hemen hasten da nire esperientzia.

Ez da batere erraza niretzat orrialde gutxi batzutan 6 hilabetetan bizi izan dudana laburtzea. Noski, denboraldi honetan bizi izan ditudan momentu garrantzitsuak nahasten baitira, bai nire formakuntza akade-mikokoak eta baita nire bizitza pertsonalekoak ere.

Goizuetan, eta nire bizian lehenengo aldiz, nire laneko erremintari aurre egin behar izan nion: "Lurra lantzeari", baina ez baratzean lan eginez, e. Terrenoaren gaineko etnografiaren ikerkuntzaz ari naiz, antropologiaren funtsezko zutabea baita. Honela eman nituen nire lehenengo pausuak herrian. Ikas-kuntza prozesu hau, herri bat eta bertako biztanleen biziarekin nahasten hasi zen: Bizimodu bat, ohitura batzuk, festa koloretsuak eta eguneroko erre-alitatea. Hau dena hizkuntza baten aurkikuntzarekin tartekatua, Goizuetan eman baititut nire lehenengo pausuak euskaraz, hemen osatu ditut nire lehenengo esaldiak eta lehenengo aldiz Euskaldun unibertsoan sartu ere. Honela lehendik ezagutzen ez nuen KULTURA bat ezagutzen hasi nintzen. Hau baitzen nire intentzioa, kultura hori ezagutu eta ikastea.

Baino agian, herri batek duen gauzarik garrantzitsuena bertako jendea da, hauek osatzen eta sortzen baitute, bizia eta jarraipena ematen diotenak hauek baitira. Beti pentsatu izan nuen Antropologiaren eta ikerkuntza sozialaren alderik hoberena jendarteko erlazioak eta tratua zirela; elkarrizketak, hizketaldiak, gizar-tearen dinamikaren behaketak eta jendearen arazo eta kezketara hurbiltzea. Inoiz ez nuen pentsatuko esperientzia hain sakona eta aldi berean aberatsa izan zitekeenik. Goizuetan, bizipen berriak, erlazioak, herri honetaz eta baita nire buruaz zerbait erakusten zidaten egoerak bizi izan ditut.

Hainbeste jende ezagutzen joatea, poliki poliki baina lehenengo momentutik, eta adin guztietakoa, planteamendu eta ideia ezberdinak zituztenak, kalean gurutzatzen nintzen edonorekin hitz egitea, lagunak egiten joatea eta







hauen bitartez herri ttiki baten bizia ezagutzea, niretzat abentura zoragarria izan da. Bizimodu hau eta Bartzelonan daramadan bizi erritmoa (azken 4 urteak bertan bizitzen baina) txoil ezberdinak dira.

Argi daukat, herri honen izaerak, irekia eta hospitalarioa, nire hemengo bizia zoragarria izaten asko lagundu dutela. Hasiera hasieratik jendearen laguntza eta maitasuna jaso dut eta hori dela eta bakardadeko momentuak oso murrizak izan dira. Honek lagundu dit lanak erraz egiten ere, oso azkar ireki baitzizkidan artxiboen ateak. Jendea elkarrizketetan laguntzeko prest aurkeztu zen, eta orokorrean nire galdera eta dudak atseginez erantzunak izan ziren. Askotan gainera kuriositatearekin nire interesengatik, behar bada inork uste ez zuen gauzengatik zirelako.

Badakit asko eskertu duzuela euskararekin egin dudana ahalegina. Horrek ere asko lagundu dit herrian integratzeko. Goizuetara iritsi baino urte bete lehenago euskara ikasten aritu nintzen, bai bainekien nahi eta nahiez hizkuntza ezagutu beharko nuela. Gainera hau niretzat erronka bat zen eta plazerra, hizkuntzak oso gustuko baititut, baino aldi berean ezagutu nahi nuen unibertsoa ulertzeko modu bat zen. Laguntza handia izan dut hizkuntza arrotz, eta niretzat berria zen batekin bizitzeko prozesu horretan, eta batzuetan zailtasunak izan arren, hizkuntzaren murgiltze prozesuaren esperientziak, aurretik neuzkan espektatiba guztiak gainditu ditu.

6 hilabete hauetan Goizuetar bat naizela senti arazi didazue. Bat gehiago eguneroko elkarbizitzan, kafea hartzera joatean, bazkal ondoretan, festetan parte hartu dudanetan edo eguerdi arte erosketak egiterakoan. Nahiz eta beti jakin, nik bertan pasa behar nuen denbora bukatuko zela, momentu batzuetan hau ahaztu egit-

en zitzaidan, eta bertan betirako geldituko nintzela era imajinatzen nuen. Sentsazio arraroa da, errealtatetik urrundu eta ezezaguna den testuinguru batean murgilduko bantintz bezala.

“Sobre todo, uno se pregunta: ¿Qué he venido a hacer aquí? ¿Qué espero? ¿Con que fin? ¿Qué es exactamente una investigación etnográfica? ¿El ejercicio normal de una profesión como las demás, con la única diferencia de que el escritorio o el laboratorio están separados del domicilio por algunos millares de kilómetros? ¿O la consecuencia más radical, que implica poner en cuestión el sistema donde uno ha nacido o crecido?”

(Claude Lévi-Strauss: *Tristes Trópicos*)

Lehenengo kontaktua herriarekin, herriko festak, amarjinak, **ahaztezi-na**. Ezinezko izango litzateke, banaka banaka, ezagutu nuen jende guztiari, emandako harrera, tratua ona eta adeitasunagatik eskerrak ematea. Barkatu ez badut egiten, pentsatzen dut bakoitzak jakingo duela nola eskertzen dizuedan, batez ere niri ostatu eman zenidatenei eta nire lehenengo anfitrioi izan zaretenari.

Adibidez, ikusgarria iruditu zitzaidan “peñan euna”, harrigarria besterik gabe; baino argi izan zuen ezin hobekak direla. Pentsatzen dut zorte handia izan dudala mozorroekin ateratzeko aukera izatean, inauterietako ekitaldi guztietan parte hartuz. Batez ere jakin ta, famili arteko festa bat dela, bertakoena alegia, herri guztiak parte hartu eta halako beroaldi ikaragarri baten sartzen dena. Herri ttikietan, mundu guztia ezagutzen den lekuetan, ematen diren egoerak dira. Arazoak eta ezberdintasunak alde batera utzi eta denak elkarrekin gozatzen duten egoerak eta momentuak. Hauek dira herri ttiki

baten bizitzek dauzkan alde onak (ez dut esaten bere alde txarrak ez dituenik), ezagutzen ez nituenak, eta hilabete batzuetan, zorteko gonbidatu bezala bizi izan ditudanak.

6 hilabete Goizuetan pasa ondoren bat konturatzen da, bertan egiten diren jaiak beti handiak direla. Izugarri gustatzen zaizue gauzak antolatzea, dantzatzea, abestea, “zikintzea”, bertako jantziekin jantzea edo mozarrotzea; Jai horiek eguneroko bizitzak ekartzen dituen tentsioak askatzeko dira, gozatzeko, jendea ezagutzeko, behar bada beste alditan hitz egiten ez duzuen jendearekin hitz egiteko, herritik kanpora bizi den jendearekin egoteko, bi hitzetan, ONGI PASATZEKO, eta aprobetxatzeko.

Miresgarria da Goizuetak eta Euskal Herriko beste herri askok duten afizioa, ospakizun ezberdinak antolatzeko, dantzarako eta ohiturak mantentzeko. Inauterietako astelehenean baserri baserri ibiltzeko ohitura hori, zoragarria da. Egun horretan bi mundu (herrikoa eta baserrikoa), gaur egun separatuta daudela ematen dutenak, bat egiten dira. Denbora luzean, janari eta diru bilketarekin inauteriak aurrera atera dira, gastuak eta mozarroen goseak asetuz; ohitura zaharrak, gauza berriak sartuz, festa mantentzen jarraitzen dutenak, tradizioa eta kreatibitatea nahasiz.

Dudarik gabe, Zagi dantza da ohiturarik esanguratsuenak, Goizuetakoa bertakoa delako eta hainbat denboran bizirik mantendu delako, XVIII mendetik (dakitenek). Horrek erakusten du Goizuetak bere ohiturekiko duen lotura. Harrituta utzi ninduen Lantzeko inauteria prestatu eta zenbat jendeke parte hartu zuen bertan mozarrotuz eta dantzaz: haurrak, gazteak, ez hain gazteak, zaharrak, gizonezkoak, emakumeak... Eta zer esanik ez Koruaz; Kultura eta festarekin lotutako ohitura zaharrek duten maitasun hori, ez da beste lekuetan aurkitzen.

Goizuetan ez naiz festan bakarrik egon, herriko bizia nolakoa den eta herriaren nortasuna adierazten duten

“Miresgarria da Goizuetak eta Euskal Herriko beste herri askok duten afizioa, ospakizun ezberdinak antolatzeko, dantzarako eta ohiturak mantentzeko”

beste alde batzuk ere ezagutu ditut. Gehien gustatu zaidanetakoa, eta gehiago ezagutzea gustatuko litzaidakeena, baserrietako bizia izan da. Askok dakizuen bezala, "mingain urdinaren" alarma izan zenean, bakanatzeko taldearekin egon nintzen. Beraiekin hainbat eta hainbat Goizuetako pista eta bide ezagutu nituen leku ezberdinetara iristeko.

Hautako batzuk aipatzeko, oso gogoan daukat Tantaipenon egindako hamaiketako bat, bi artzainekin hitz eginez, artalde tiki bat bakunatu ondoren, edo eta San Pedroko borda eder hura, ermita zaharra, edo baserriarren goxotasuna gu joaten ginen bakoitzean. Zenbat korral zanpatu ote ditut ardiak kontatuz! Ze baserri eta borda ederrak ikusteko aukera izan dudan!

Ikasteko aukera ezin hobea abeltzainen bizimoduaren aspektu ezberdinak ezagutzeko. Abeltzaintza batzuentzat bizibidea dena eta besteentzat alde batera utzi edo ahaztu nahi ez duten ohitura dena. Gainera orain badakit ardi bat nola hartu behar den (ni baino 10 kilo tikiagoa denen, noski), nola desberdindu ahari bat usaiagatik, edo artzainek joare ezberdinak jartzen dizkiela azindei urtaroaren arabera.

Baserria izan da mende askotan Euskal kulturaren ikurretako bat. Batzuetan indar politikoez erabili dute, baserriarren lan gogorraz beraien programa politikoen aldeko bandera eginez. Literatura ere baserriarren bizimoduan inspiratua dago, eta honen adibidea bertsolarien errimak dira. Baserrietako biziaren aldaketa nire ikasketetako fokuetako bat izan da, eta etorkizuneko ikerkuntza batean galdera gehien egin daitezkeena.

"Hay montes altos poblados de robles y de encina, hay valles estrechos con pueblecitos en el fondo rodeados de campos de maiz, hay peñas ceñudas que levantan su frente al cielo, hay prados risueños y verdes, hay caseríos blancos, muy blancos, ocultos entre el follaje, y rios claros y tumultuosos que saltan ahora entre

"Alditik aldira gauza gehiago esateko gai nintzen, goizuetar doinua zuan "euskañol" batean"

pedras formando encajes de espuma y se remansan luego en un cauce donde el agua clara duerme quieta sobre los limpios guijarros"

Pío Baroja, Fantasias vascas.

Hilabeteak pasatzen zihozten Goizuetan neguan sartzen ari ginean, eta ni sukaldeko ekonomika pisten trebatzen ari nintzen. Alditik aldira gauza gehiago esateko gai nintzen, goizuetar doinua zuan "euskañol" batean. Hala ere, egindako elkarrizketa batzuetan gaztelaraz hitz egiteko beharra sumatu nuen; sei hilabetetan mirariak ezin dira egin! Nahiz eta nire euskarako irakasleak eta nire ikaskideak lagundu zuten nire aurrerapean alditik aldira handiagoak izaten. Ez da batere erraza euskara ikastea, batez ere jakin ta jendeak gaztelaraz ere ulertzen dizula. Hala eta guztiz ere, esfortzuak pena merezi izan du, ze nahiz eta prozesua gogorra izan, oso atsegina eta dibertigarria izan da eta Goizueta bezalako herri batetan beharrezkoa. Han bertan daude adibideak, hizkuntza hitz egiten ikastea ez dela ezinezkoa eta ahaleginarekin eta pazientziarekin lor daitekeela. Ingurua oso egokia da ikasteko, hori argi dago, eta harrigarria da laguntzeko hartzen duzun jarraera, beti euskaraz hitz eginez eta izugarriko pazientziarekin, bai bai nirekin gaztelaraz mintzatzen zirenei errixa ere ematen zenioten!

Zer gehiago kontatuko dizuet? Ba, Goizuetan zorte handia izan dudala, eta Euskal Herrian jendeak lagun kuadrila bat izaten badu, ba nik gutxienez hiru izan ditudala. Hemen bai ezin zaituztedala denak aipatu, baina gazteak lagundu didazue nik Goizuetan pasa dudan denboraldia, lana eta ikerkuntzarako denboraldia bakarra ez izaten. Ostegunero, Umore Ona elkartearen, afora zoragarri hauetaz disfrutatzeke aukera eman didazue, vegetarianismoa alde batera utzi nu-

en baserriko oilasko goxo haietaz aldatuz, Nafarroa Oinezko bideetatik eramanez, Leitza eta Hernaniko irauteri eta festetatik, hainbeste estimatzen duzuen Goizuetako biziaz zenuten zuen ikuspuntua erakutsi zenidaten, egunero bizitzen duzuen prozesu politikoari buruzkoak eta beti izan duzue gauzak bi aldiz errepikatzeke pazientzia goizeko paseoetan, Gaztetxeke arratsaldetan edo Artikutzara egindako bidai zoragarri hartan. Denagatik, **ESKERRIK ASKO!!!**

Lan honi ezin diot bukaera eman, udaletxeke lankideei beraien laguntza eta pazientziagatik eskerrak eman gabe. Asko arduratu dira nik beti leku bero bat izateke, paper artean murgiltzen hasten nintzanean.

Izen asko eta abentura asko kontatuko nituzke, oraindik, baino denak ez dira orri hauetan kabitzen, ezinezkoa da. Aipatzeko gelditzen zaidana Goizuetako tabernatan pasatzen nituen arratsaldeak, beti par artean, errez kontagiatzen den umore eder horrekin, zuetako norbaitekin hitz eginez, hotzari buruz, Goizueta eta bere historiari buruz, politika edo pilotako txapelketari buruz. Urrutinen, Izkinan, Amaian kafetegian, Juananetxen, Bekodendan edo Goiz Argin; batzuetan kartatako partida baten bueltan edo istorio ezberdinak eta asteburuko kontuak kontatuz.

Orain urrutitik, hilabete horietaz oroitzen naiz, atzera begiratzen dut eta zorte handia izan dudala pentsatzen dut; bizian behin gertatzen diren gauzetako bat da, eta nik zuen ondoan bizitzeko aukera izan dudana. 6 hilabete hauengatik, nire esker ona adieraztea besterik ez zait gelditzen eta zuekin berriz elkartzeko momentuaren zain egotea. Badakit laxter izango dela!

**Goizueta, mila esker!
Ikusi arte!!**



14

bidaia



Alaska

Alaska, azken muga, bertako autoen matrikulatan jartzen duen bezala.

Espainiar estatua baino hiru aldiz handiagoa den estatua, hiru miloi laku baino gehiago ditu eta munduko baso heze handienetakoa daukan herrialdea.

Hemezortzigarren mendean, errusiarrek saldu zieten lurralde zabal hau amerikarrei. Errusiarrek lurraldea inbaditu baino lehen bertan jaiotakoak bizi ziren han, Haidak,

Ttingitak, Inuitak eta beste hainbat tribu ezberdin. Errusiarrek batez ere bertako animalien larruak eta itsasoak ematen ziena aprobetxatzen zuten.

Estatu batuek erosi zutenean beste erabilera batzuk atera zizkieten lurraldeari, bertako basoak eta itsasoa ustiatuz. Orain batez ere petroleoa, arrantza eta basoen esplotazioa dira baliabide ekonomiko nagusiak.

Alaska hotza eta lur izoztu bat dela pentsatzen duen jende asko dago.

Egia da bertan neguak gogorak eta luzeak direla (iparraldean ordu pare bateko argia izaten dute neguan eta zero azpitik 40 gradu egin ditzake), baina leku aberatsa da natura aldetik.

Bertan tundra dugu iparraldean, mendikateak, hezeguneak erdialdean eta basoak mendiak eta kosta hegoaldean. Udan 30 gradutara iritsi daiteke tenperatura hegoaldean eta neguak ere epelagoak dira. Udako egunak oso luzeak izaten dira, eguzkia ez denez sartzen gau erdirarte.



Daniel

Umetatik natura gustatu arren, Amerika iparreko parajeak izan ditut gustuko. Bertako mendiak, basoak eta animaliak, hartzak, otsoak, altzeak, arranoak....

Jack London idazlearen nobelen eraginez Alaska beti izan nuen buruan. Alaska izenak abentura esan nahi izan du betidanik bidaiatzen duten guztientzat eta batez ere niretzat. Munduan gelditzen den leku basati bakarrenetakoa izango da Alaska. Bertan egunak edo eta asteak egin daitezke kilometroak eginez mendian inor ikusi gabe, ez errepide bat, ez jendea dagoen arrastorik ikusi gabe.

Alaskan zure esku dago zure burua, hor mendian zerbait gertatu ezker bertan geldituko zaitezke bada kizu.

Abentura nahi nuenez motxila hartu eta Alaskara joan nitzan.

Lehendabizi Kanadara hartu nuen abioia eta bertatik autobusez joan nitzan, Rokosak gurutzatuz, Alaskara. Denera lau egun egin nituen autobusez Anchorage izeneko hiriburura.

Bidean jende xelebrea ezagutuz joan nintzen eta nik ingelesez ideiarik

eduki gabe japonesez batekin elkartu eta batera afaldu genuen hanburgesa bana, zerbeza txarro eder baten aurrean, ni euskaraz eta bera japonesez.

Anchorage janaria erosi eta hirirean ateran jarri nintzen dedo egiten.

Handik aurrera bidai guzia dedoz egin nuen, merkeago eta bertako jendea ezagutzeko modurik hobereana zelako, dudarik gabe.

Lehenik Kenai penintsulara joan nintzen. Bertan mapa bat lortu nuen, hango mendietan ibiltzeko asmoz. Ibilaldia aste bete ingurukoa zen. Eguraldi ona zegoen eta gustura ibiltzen zen, motxilako 30 kiloak kontuan ez hartu ezker.

Mendian egun pare bat nituela, eurria hasi eta bi egunez gelditu gabe egon zen. Noski, ni denda barruan atertzeko zain. Azkenean aspertu, dena bildu eta atera egin nintzen bidea jarraitzeko, gainera jateko ere gehiegirik gabe nengo.

Atera orduko eguraldiak hobera egin zuen eta laku baten ondora iritsi nintzen. Bertan, denda baten ondoan, tipo bat atera zen nire moduko pintekin. Hizketan hasi zen eta berak erdaraz egiten zuenez ederki moldatu ginen. Daniel izen zuen, estatubatuarra zen, Utah-koa.

Nire lagun berria janaririk gabe

gelditu zen eta nik ere askorik ez nuen arren, nirea bien artean jan genuen eta biek tripa betearekin baino besterik gabe gelditu ginen.

Kilometro batzuk atzerago izokin (salmoi) pila bat ikusi nuen eta Danieli esan nion batzuk ateratzen saiatu beharko genuela. Segituan makila pare bat egin nituen, punta ebaki erditik eta bertan labanaren kiderra sartu hoja kanpoan utziz, eta lixto gure armak. Berak ez zekien nola egin arrantza, eta egia esateko nik ere ez nuen sekula egin holako arrantzarik, baino gure lantzak hartu eta pixkanaka izokin taldetara arri-matuz joan ginen. Poliki poliki arri-matu, gure lantza izokina ukitu arte ondora eramaten genuen eta labanarekin hauek ukitzean zast!! golpe bat eman eta barrenera. Lehendabizirik ez genuen hainbesteko arrakastarik eduki, baino trukua hartzean nahi adina izokin genituen jateko. Kontua zen, egun batzuetan ibili beharra genuela eta jatekoa nola mantendu, hondatu gabe. Gogoratu zitzaigun uretan haragia egosi eta Danielek zituen pote batzuetan sartzea. Horrela egin genuen bueltako bidea, biak elkarrekin. Gauetan eguraldi ona zegoenean suntuoan jarri eta filosofatzen egoten ginen. Askotan zakuan sartu eta zerura begira kontu kontari berandu arte.

Biek gustura geundenez bidaiatzen elkarrekin jarraitzea erabaki genuen.

Ibilaldiko azkeneko egunean izokinak bukatu zitzaizkigun eta errepidera indar askorik gabe ailegatu ginen. Bertan dedo egiten ari ginela tipo batek deitu zigun. Danielek zer behar zuen galdetu zion eta goserik bagun en galdetu zigun, eta guk, "nere batten, jakingo balu". Jateko lata batzuk atera zizkigun tipoak eta bidenabarkoan bere bizia kontatu. Hortik aurrera holako asko eduki genituen, jendeak jatera edo bere etxera lotara gonbidatzen gintuen noiz nahi. Holaxe da Alaskako jendea, oso irekia eta laguntzeko beti prest. Bidaiaren gauzarik hobereenetako bat izan zen.



Kenai penintsulatik Denali parke nazionalera joan ginen baino bertan eguraldi txarra zenez eta kanpoan lo egiteko rangerretatik ihesi ibili behar genuenez, berriz hegoaldera jo genuen.

Behin bide bazterrean dedon geundela, tipo arraro xamar batek hartu gintuen. Erabat bere etxera eramane nahian zebilen. Itxura txarra hartu genion eta mila aldiz ezetz esan eta noizbette pakean utzi gintuen. Handik egun pare batetara gasolinera batean geundela kartel bat ikusi genuen bere argazkiarekin eta azpialdean "WANTED" jartzen zuela. Bi ume bahitzeagatik polizia bere bila zebilen, itxura zuenez.

Beste batean bikote heldu batek hartu gintuen eta beraien etxera gonbidatu lotara. Afaltzeko bertan zeukaten baratzako letxugak eta beste barazki batzuk eman zizkiguten. Aspaldiko partez zerbait sanoagoa jan genuen behintzat.

Hurrengoan Mendenhall glaziarra joan ginen. Lekua Alaskara heldu nintzala ikusi nuen. Gustatu eta bertara joatea erabaki nuen eta Daniel konforme zegoenez...

Sarreran txiringito bat zegoen eta glaziarra ikusteko kobratu egiten

zuten. Guri berriz ez zitzaigunez ongi iruditzen, gordean sartu ginen. Alaskara etorri munduko lekurik basatienera eta mendian ibiltzeagatik ordaindu... Glaziarren beste aldera joan behar genuen, han jenderik ez baitzegoen eta egoteko leku lasaia ematen baitzuen. Kontua zen, glaziarra bukaeran erreka zegoela eta ur askorekin. Itxuraz hau gurutzatzeko modu bakarra bertan kable bateri lotuta zegoen lantxa hartzeraz zen, baino kandaduekin zegoen eta glaziarren hasieratik pasatzen hasi ginen. Metro gutxi batzuk egiteko ordu pare bat behar izan genituen, leku oso faltua baitzen, lohia, izotza eta ura. Azkeneko zatian, Daniel aurretik zihonan eta ni atzerago nengoan argazkiak ateratzen. Bera pasa zen, eta nik kamara motxilan sartu eta izotz puska batetik bestera pasatzeko saltoa egin nuen eta... izotz puska uraren azpira joan zen eta noski ni berarekin batera. 30 kiloko motxila bizkarrean nuen, ur azpitik ezin nintzen atera eta gotti pixka bat arrimatzen nintzen ahal nuen bezala arnasa hartzeko, baino berriz betti. Azkenean lasaitu, motxilan engantxeak kendu, esku batekin motxila eutsi eta bestearekin, ez dakit oraindik nola, baino atera nintzen.

Leku honetan egun batzuk egin genituen lasai eta gustura; mendian ibiliz, gauetan eguraldi onarekin kanpoan sutondoan lo eginez eta aurora borealak ikusiz... Baina jatekoa berriz bukatzeraz zihonean atera egin behar.

Euria egin zigun egun pare batean. Erreka asko hazi zen eta lehen zeharkatutako lekua urak hartuta zegoenez handik ezin pasa. Orduan pentsatu nuen erreka gurutzatzen zuen kabletik pasatzera beste aldera. Kontua zen pulstuan zintzililik egon behar zela eta motxilarekin ezin zela. Banuen soka bat motxilan eta motxilaren engantxeak kablara lotu eta motxila nire gerrira lotu nuen soka bidez. Pixkanaka pasatzen hasi nintzen. Kablea erdialdera jaitsiz joan ahala, erreka olatuak bizkarrean jotzen zidaten eta errematea, motxila trabatu egin zen. Bide erdian ez atzera ez aurrera gelditu nintzen eta indarrak bukatuta. Hor erori ezker... akabo! Gehiago ezin eta azkenean eskuak askatu nituen zer zegoen jakinez eta hanke-



Mckinley mendia

tatik zintzilik gelditu nintzen. Berriz nolabait indarrak hartu eta atzera egin nuen ahal nuena, motxila hankekin bultzatuz eta ur ixkinean salto egin nuen. Bustia, baino bizirik atera nintzen berriz ere, eta parrez ze ia hartzen nuen bigarren bainua zen.

Hurrengo saiakera glaziarretik izan zen, baino eromena zen, izotzaren gainean kranpoirik gabe eta sokarik gabe ezin baitzen ibili. Goseak eta nazkatuta! Danielek glaziar ondotik igeri eginez ateratzea erabaki zuen, ura geldiagoa zenez, baino oso hotza eta hipotermia bat harrapatzeko arriskuarekin. Motxila flotadore bezala ibiliz joan zen baino bukaeran dena bustita zuenez, kargarekin motxila urperatu eta galdu zen. Sarreran zeuden tipoak etorri ziren eta lantxarekin atera ninduten. Gaua pasatzeko tx-

abola bat utzi ziguten. Daniel nahiko lur jota zegoen, dena galdu baitzuen, dirua, pasaporte, arropak... dena. Animatzen saiatu nintzen gauean, esanez bizirik zegoela eta alde ona ikusi behar zuela. Gainera horrela abentura handiagoa izango zela. Hurrengo egunean berri onarekin jaiki ginen, glaziarra estudiatzen zuen geologo bat zebilen gu ibilitako lekuan eta Danielen motxila harrapatu zuen. Danielek esaten zuen bezala "*bidai milagrosoa*".

Handik aurrera dedo egin genuen eta tarteka mendi artean sartu eta egun batzuk egiten genituen gure betiko martxan. Ni argazkiak aterez eta mendian ibiliz, aldiz Daniel eguerdi arte lo eginez. Eta faltaik gabe gauetan hizketan gustura egonez, izarrei begira.

Kanadara pasatu ginen eta Haines Junction izena duen herri batetan egun pare bat dedo eginez pasa genituen. Azkenean hirugarren egunean hartu gintuzten, Withorse izeneko hirira joateko. Giroa tristeagoa zen gure bideak han separatzen baitziren. Ni etxera nindoan eta berak dedoz jarraitzea erabaki zuen Utah-raino.

Nire lehenengo bidaia izan zen eta dudarik gabe bereziena eta hoberena.

Daniel eta biek elkarrekin bizitako eunak sekulan ez ttut ahaztuko. Bertako jendea, salmoiak harrapatzen nola ibili ginan, biden ezagutu gunun jendea, mendik, basok... momentu hoiak denak.

Ander Olaizola

(www.anderolaizola.es)

Azaro kulturala 2007

Erantzun ederra eman zioten herritarrek "Azaro kulturalari".

€ hunka lagun igo ziren Ganbarara iazko azaroko asteburuetan bertan burututako ekitaldiak ikusteko asmoz.

Inoiz ez bezalako erantzuna eman zioten, beraz, herritarrek Azaro kulturalari. Kultur taldeak eta Udalak antolakuntzan bete betean asmatu zutenaren seinale.



1

● Azaroaren 3an, Jaione Olazabalek bere ahots goxoaz gozatzeko aukera eman zigun. Ganbara jendez eta umorez bete zen. Abesteko aukera ere izan genuen.



2

● Bigarreno asteburuan, Eriz Magoa izan genuen eta haurrak eta helduak ere ongi pasatzeko aukera ederra izan zuten.

3

● Azaroaren 16ean izan zen Jaime Karreraren diapositiba emanaldiak ere arrakasta handia izan zuen.

4

● Azaroaren 18an zine emanaldia ikusteko aukera izan zuten haur eta gaztetxoek.





5. Azaroaren 23an, ilunabarrean Andres Mitxelenaren bertso idatziak abestu zizkiguten bertso eskola eta musika eskolako taldetxo eder batek. Andres Mitxelenaren 100. urteurrena zela eta aipamen berexia egin nahi baitzen. Honen ondoren Txirritaren bertso idatzien jaialdia izan genuen, Irazu, Agirre eta Goikoetxearen eskutik.



6

Hilabeteko ekitaldi nagusia, Ferriak alegia, jasotako erantzuna baloratzeko hitz bat bakarra erabili liteke: IKARAGARRIA. Mingain urdinaren ondorioz aziendak ezin kaleratu izanak kalte egin zion ferriari dudarik gabe, eguerdi arten plazak zeukan itxuran batez ere. Dena den, bazkalordutik igande goizera arte ederki ahaztu ziren mingain urdinak, paregabea izan baitzen herriko festa giroa.



7

Azaroko azken egunean, 30ean "Xalto Sariaren" kanporaketa ere izan zen Umore-Ona elkartearen.

Eskerrik asko gurekin ekitaldi guzti hauez gozatzeraz hurbildu zaretzen guztioi, dudarik gabe jenderik gabe emanaldi eta ekitaldiak ez baitira gauza bera.

Eraldaketa soziala

kapitalismo neoliberalatik sozialismora

Eraldaketa Sozialak, gaur egun Sistema Kapitalista Neoliberal honetan bizi dugun prekarietate egoerarekin bukatzea bilatzen du. Hau da, batzuen interes ekonomikoetan oinarrituta, jendartearen oinarritzko eskubideak negozio bihurtu dira, eta Eraldaketa Sozialak eskubide hauen urraketekin bukatzea du helburu.

Historikoki, Euskal Herria eta Euskal Herriko langile eta herri sektoreak, aberastasun iturri izan dira espainiar eta frantziar estatueta burgesiarentzat, eta baita Euskal Herriko bertako klase menperatzaileentzat ere. Horientzat, Euskal Herriko langile eta herri sektoreen zapalkuntza eta esplotazioa, etekinen zein kapital metaketaren sinonimo dira. Horregatik saiatu izan dira beti Euskal Herria menpean hartzen, eta horregatik saiaturen dira gaur egun ere oinpean mantentzen.

Alde batetik, Euskal Herriak nazio zapalkuntza eta kapitalismoa jasan izan ditu estatuen nahiz marko autonomiko zatikatzaileak inposatzen dizkiguten klase menperatzaileen eskutik, eta oraindik ere, beraien proiektu kapitalista neoliberalak inposatzen dihardute.





Eta bestetik, neoliberalismoa bere horretan mantentzeko, kapitalismoaren gauzapenerako beharrezko diren Multinazionalen eskutik, jarduera ekonomiko estrategikoak ekimen pribatu bihurtu eta desindustrializazioa zein deslokalizazioa bultzatzen ari dira.

Hau kontuan hartuta, ezinezkoa ikusten dugu planteatu nahi dituzten makro proiektuak jendearen zerbitzura jartzea. Euskal Herria txikitu nahi duten planteamenduek badituzte beste helburu eta ondorio batzuk. Proiektu txikitzaileak sistema kapitalistaren interes ekonomikoen arabera proiektuak dira, amalurraren sunsipenean oinarrituz, hamaika forma har ditzaketenak. Proiektu hauek eragin zuzena dute jendarte antolaketa zapaltzailearen biziraupenean eta honetarako disainatuta daude. **Hau dela eta, eraldaketa sozialaren barruan kokatu beharreko ezinbesteko borroka da eredu zapaltzailea areagotzen duten proiektu txikitzaile guztiak gelditzea.**

Honen adibide argiak dira beraien neurrira egindako sistemak eta Neoliberalismoa praktikatzeko martxan jarritako hainbat proiektu: Ikastetxeetako hezkuntza politikak, Inmobiliariak, Modak (arropa eta neurriak, musika...), Kirol Portuak, AHT, Enpresetan onartutako lan baldintza penagarriak,...

Halaber, negozio eremuak biderkatze aldera, bizitzaren alor guztiak (etxebizitza, hezkuntza, osasungintza, babes ofiziala, oinarritzko zerbitzuak -ura, argia, energia...-, kultura, aisia...) pribatizatuz eta merkantilizatuz dihardute.

Bestetik, langile eta herri sektoreei dagokienez, lan baldintzen prekarietate soilaz baino bizi-baldintzen beraien prekarietateaz hitz egin beharrean gara. Lanaldiaren luzapena, soldaten murrizpena, behin-behinekotasuna, azpikontratazioa, iraupen laburreko kontratuak, kaleratzeen merketzea... lan baldintzen eta herri sektoreen bizi-baldintzen prekarietatearen adibide argiak dira; baita emakume eta gizonen arteko lan baldintzen ezberdintasunak ere.

Ildo berean kokatu behar dugu banketxeen fenomenoaren ere, hauek bihurtu baitira gure etorkizun ekonomikoaren jabe. Hipoteka eta maileguak dira gaur egungo dirutzen iturri. Dirua duenak inbertitzen du eta horrek bakarrik jasotzen du, horrela aberatsa aberasten eta txiroa pobregoa bihurtzen delarik.

Aipatzekoak dira baita ere baloreen transmisioan eragin sendoa duten estatuaren hainbat aparatatu, besteak beste, eliza eta komunikabideak. Hauen zeregina, nola pentsatu, nola jan, nolakoak izan... esatea da, honela sistemak bizirik irauteko beharrezkoa den ideologia sortzen baita. Horrela, diru iturri bihurtuko den eskubideen urraketa bermatuko duen balore multzo bat sortzen da.

Honen adibide argiena etxebizitzaren kasua da: **etxebizitzaren kudeaketa pribatua, hau da, eskubide bat merkatu pribatuaren esku uztea, eskubideak bermatuta ez dituzten herriarren eskubideekin negozioa egiteko erabiltzen dute.**

Gauzak horrela, jendarte aske bat eraikitze bidean ezinbestekoa da balore zapaltzaile guztien iraulketa ematea, ezinezkoa baita balore hauetan oinarritutako jendarte aske bat sortzea. Horregatik da hain garrantzitsua hezkuntzaren papera. Hezkuntzaren, eta lehen aipatutako eliza eta komunikabideen bidez, balore zapaltzaile hauek gizarteratzea lortzen baitute. Honen guztiaren ondorio da martxan jartzen ari den Bologna hezkuntza sistema; horrela beraien intereserako erabiliko dituzten baloreak oraindik ere bermatuago izango baitituzte sistema kapitalista eta neoliberal baten mesedetan. Horregatik **ezinbestekoa da hezkuntzaren eraldaketa ematea. Izan ere hezkuntza da sistema kapitalista honetako balore zapaltzaileak gizarteratzen dituen tresna nagusia.**

Guzti honen aurrean, inposaketa eta eskubideen urraketa oinarritutako prekarietate orokorrari aurre egitean datza ERALDAKETA SOZIALA. Eta eraldaketa sozialaren bidean, bereziki etxebizitza eta AHT-a dira momentu honetan aurre egin beharreko arazo nagusiak. Batetik etxebizitza eskubidearen urraketa delako sistema kapitalista honen oinarri ekonomiko nagusiarena, eta bestetik, AHT-a delako proiektu txikitzaileen eta jendarte eredu berri baten bultzada ikaragarria emango duen tresna.



Sozialismoaren bidean, Euskal Herria eraiki (eraldatu)!

Hitz klabe batzuen definizioa testua hobeto ulertzeko:

NEOLIBERALISMO: Liberalismo-mota berri bat aldarrikatzen duen doktrina.

Ekimen pribatu eta kompetentzia libreaz gain estatuaren esku hartze mugatua onartzen du.

LIBERALISMO:

1. Agente ekonomikoek ekimen indibidualen joko librea eta estatuak ekonomian esku ez hartzea aldarrikatzen duen doktrina ekonomikoa.
2. Estatuaren botere politikoa mugatu eta gizabanakoaren askatasunaren azpitik jartzen duen doktrina politikoa.

Sozialismoari zuzenean kontrajartzen zaion doktrina dela esan daiteke.

KAPITALISMO: Produkzio-bide eta banakuntza-bideen jabetza pribatua (eta ondorioz irabazi pribatua) oinarritzen den sistema ekonomikoa eta soziala. Bere ezaguri nagusiak ekimen indibiduala, helburua mozkin (irabazia) izatea eta enpresen arteko konkurrentzia (kompetentzia) dira.

SOZIALISMO: Produkzio-bideen jabetza kolektibo edo sozialean eta ondasunen berdintasunezko banaketan oinarritutako gizarte-eredua aldarrikatzen duen teoria.

KAPITALISMO





Atzera begira 1997

Xaporen azken aletan hartutako ohiturarekin segituz, atzera begirada botako dugu ondoren, Ttipi-ttapa aldizkariaren arabera 1997. Urtean Goizuetan gertatutakoa orri hauetara ekarriz.

Ttipi-ttapak urteko bere lehen alean, kezagarritzat jotzen zituen kaleratu berriak ziren eroldaren datuak. Goizuetak 1000 biztanleen marra jaitsi zuen, eta horren ondorio kaltegarriak aipatzen ziren kronika. 944 lagun bizi ziren herrian orduan, 512 gizonezko eta 432 emakumezko.

Depuradoraren lanak ere ilbeltzean adjudikatu ziren, eta "Construcciones Amenabarren" esku gelditu zen 80 milioi pezetako aurrekontua zuen obraren ardura.

1997. urteko 2. alean otsailaren 9, 10 eta 11an ospatu beharreko inauteriak iragartzen ziren (1. argazkia) eta otsaileko aurrenekoan berriz, Santiago Cervera, Nafar gobernuko osasun saileko kontseilariak mediku kontsulta inauguratu zuela zioen hizki handiz. Kontsultak eta larrialdietarako medikuaren pisuak osatzen zuten obra. 17.200.000 pezeta guztira.

Dirutza hori guztia Iruñak ordaintzen zuen.

120 milioi pezetako aurrekontuak onartu zituen udalak otsailena. Orduan ere diru sarrera nagusia menditik zetorrena zen, 27 milioi guztira.

Herri Batasuneko Mahai Nazionalaren kartzelaratzearen kontrako mozio ere onartu zuen Udalbatzak.

Iruñak bestalde, erantzun ona eman zien "Hiru urteko planaren" barrenean Goizuetan luzatutako eskaerei. 46 milioi pezetako aurrekontuko obrak baizkoa jaso zuten, eta beste hainbesterenak ere jaso zitezkeen ondorengo hilabetetan.

Martxoaren 15ean Anje Duhalde kantatzen zuen herrian Udalak antolatutako ekitaldian. Ondoren barrikotea izan zen.

Martxoaren 8an inauguratu zen Iskibi kanpina eta 18an, Pili Untxalo alkatesak epaitegietan deklaratu behar zuen Espainiako ejertzitoarekin ez kolaboratzeko akordioa hartu zuelako korporazioak.

Apirilean garaipen asko sartu ziren herrian. Iruñeko Gaiarren ospatutako Nafarroako Haur Kantu txapel-

ketaren finala irabazi zuen Eneritz Arozena-Saioa Taberna bikoteak "Maitasun hitzak" kantarekin. (2. argazkia)

Umore Ona ordezkatzuz berriz, Juantxo Apezetxea eta Almandozen Nafarroako pilota txapelketa irabazi zuten, 22 eta 8ko emaitzarekin, Tirapu eta Fernando Goñiren kontrako partiduan.

Apirilaren 15ean bestalde, Pili Untxalo alkatesa atxilotu zuen poliziak bere lantokian. Epailearen aurrean deklaratu eta libre gelditu zen. Akusazioa, goian aipatu duguna. Hilabete berean segituz esan, Goizuetako Udalak Leitzako zahar etxearen proiektuaren alde egin zuela, Lekunberri, Larraun eta Betelukoa baztertuz.

Ongi merezitako omenaldia eskaini zieten Udalak eta Umore Onak Etxeberriari eta Bakero anai-arrebei maiatzean. Festa ikaragarria izan zen eta 300 lagun bildu ziren herri afarian. Pala txapelketa mistoa ere egiten zen orduan, eta Izaskun Bakerok eta Iñaki Loiartek irabazi zuten 1997ko edizioa.



Ekainean 26 boluntarioz eta hainbat tresneriaz ongi hornitutako suhiltzaileen parkea osatu zen herrian. 50 orduko iraupena zuen ikastaroa gainditu boluntarioek aldeztu aurretik. (3. argazkia)

Elizako obrak bukatzeaz zeude-nean berriz, Udala eta Eliza beraren arteko desadostasunak sortu ziren berogailua zela eta ez zela. Hau ekainean zen eta negurako konpondu ziren eztabaida guztiak.

Eskolako ikasturtea bukatzearekin batera berri onak etorri ziren Iruñetik, 3 ikaslek sari potoloak lortu baitzituzten Gobernuak antolatutako literaturgintza lehiaketan. Olaia Lekuona, Eneritz Arozena eta Josu Eskudero izan ziren sarituak.

Izena emateko epea zabaltzeaz gain kurtsu bukatu berriaren balantzea egin zuen Musika Eskolaz uztailean. 44 ikasle zituen orduan Eskola horrek herrian.

Arkupeak Jubilatuen elkarteak berriz, Pauleneko Gabino eta Maritxo eta Sarrango Dolorex omendu zituen urte hartan. Zaharrekin jarraituz esan, berez Kusiñenekoa zen Jacoba Apezetxeak 100 urte bete zituela uztailearen 25ean.

Amabirjinetaz gauza bakarrik esan liteke: Ikaragarriak izan zirela.

Irailena berri ona zetorren eskolatik, 6 ikasle gehiagorekin hasi baitzuen ikasturtea.

Errekaundi pasealekuko babes ofizialeko 12 etxe bizitzen giltzak ere hilabete horretan entregatu ziren.

Kirolari dagokionean, Juantxo eta

Joxeanton Apezetxeak irabazi zuten Antiguoko txapelketa, Juantxorentzat 3. garaipena izan zen eta Joxeantonentzat 5. Bi pilotari hauek eta Aimar Olaizolak eta Almandozek osatzen zuten irailean hasi beharra zen "Espainiako Ohorezko Dibisioa" Umore Onaren izenean jokatu zuen taldea. Anjel Salaberriaren ustez helburu bakarra zuen ekipoak, Txapelketa irabaztea.

Hilabetearen bukaeran ospatu zen I. Mikologia Jardunaldia arrakastatsua izan zen hagitx. Xabier Taberna zen antolatzaile buru eta 200 perretxiku mota izan ziren ikusgai. Ander Olaizola ere egun ahietan herri-ratu zen Alaskan barrena bi hilabete ibili ondoren.

Urriaren Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoek emanaldia eskaini zuten plazan Arte eta Kultura kanpainaren barrenean.

Udalak eta herriko erakunde guztiak berriz, adierazpen askatasuna aldarrikatzen zuen manifestua sinatu zuten HBko Mahai Nazionalaren kontrako epaiketa zela eta.

Azaroan besteak beste, urrezko ezteiak ospatu zituzten Pauleneko Gabinok eta Maritxok.

Ximon eta Txamok Egin Mus Txapelketako herriko kanporaketa irabazi zuten.

Hilaren 27an ospatu zen eskolan Xalto eguna bertso festa ederrarekin. Bertso paper lehiaketaren sarian ere orduan banatu ziren. (4. argazkia)

Abenduan eskoletako berokuntza sistema konpondu zen 11 miloi pezetako aurrekontuarekin.

Umore Onak bere atalen festa ospatu zuen. Elkarte honen pilotariak "Espainiako klubaren arte txapelketaren" finala jokatu zuten.

Juan Miel Apezetxea Iruñako kartzelara ekarri zuten.



Aimar Olaizolak

Buruz Buruko bigarren txapela jantzi zuen

azko ekainaren 17an Olaizola Iiak eta Barriolak pilotako buruz-buruko finala jokatu zuten Donostiako Atano IIInean.

Aimarek irabazi zuen, aisa samar gainera, 22 eta 10. Final honi buruzko 5 bertso idatzi zituen orduan Txomin Garmendia bertsolari ezagunak Xapo urtekarirako. "Goizueta Gogoratzuz" izenburua du ondorengo bertso sortak.

Goizuetako txoko polita
Gaur bai zoriontsu dala,
Esku-pelotak dun txapelduna
Bere sailetan daukala.
Aimar Olaizola degu bera
Bizkorra bezin apala;
Opa diogu izen on hori
Luzaro izan dezala.

Pelota dute kirol maitea
Goizuetan eta Leitzan,
Ikusten degu aspalditxoan
Goi-mailan nola dabilzan.
Ta erabaki beharra zegoen
Txapela zeinentzat izan;
Meritu osoz Goizuetarra
Jarri zaigu nagusitzan.

Ekain ilaren hamazazpia
Izango degu gogoan,
Gure pelota maila altuan
Jarri dute oraingoan.
Olaizolan ta bai Barriolan
Ai zer sasoia dagoan!
Biak merezi zuten txapela
Baina bakarra zegoan.

Leitzar maitek ez du merezi
Txalotu gabe uzterik,
Partidu aurrez bi aldetatik
Bazegon nahiko usterik.
Hasieratik suerte txarra,
Etzun ikusten besterik;
Oker haiekin Olaizolari
Etzegon irabazterik.

Goizuetako emaitzak dira
Saiatuan ondorenak,
Ikasbide ederrak benetan
Eman nahi dizkigutenak.
Arrazoi dute esaera hau
Sarri samar diotenak:
Baso txikian sortu leizkela
perretxikorik onenak.

Txomin Garmendia



Denborapasa

Asmatu Euskal Herriko zein herri estaltzen diren taula hauetan. Lehengo zutabeen asmatutako letra kopurua adierazten da. Bigarren zutabeen dagokien lekuan dauden asmatutako letren kopurua azaltzen da.

€	R	O	S	O	0	0
H	A	R	T	U	3	0
A	I	T	O	R	2	1
U	R	K	O	A	2	0
N	A	T	U	R	4	0

K	A	T	U	€	0	0
A	B	I	L	A	3	0
O	K	A	T	U	1	0
B	A	T	U	Z	2	0

Txistekak

Behin Goizuetako bi mutil erlijioko klasen gaizki portatu zialako, apezak arratsalden kastigatu in zittun. Hala, arratsaldeko 4:30tan bi umek klasen gelditu zian apezakin; liburuk ireki ttuzte eta apezak esaten dite:

– Oain hemen ni bi ume hoiengatik, aspaldi kanpon behar nuna...

Eta ume batek esaten dio:

– Zer zinun ba museko partida bota beharra o...

– Museko partida? Oain ingo ttizutet nik galderak, ta ia zenbat tanto atetzen ttizuten...

Apezak ume bateri beitzuz hola galdetzen dio:

– Aber Jaimito, itxasoa zertik da gazia?

– Itxasoa gazia? Bakailongatik.

– Nola izango da bakailongatik. Hoik ume gaixtok! Aber, zuek ez al zute zerura jon nahi?

Batek:

– Nik bai!!!

Eta bestek esaten du:

– Nik ez ba!

Eta Apezak:

– Ze ba?

– Amak 5:30tako itxera joteko san dit ta!!

– Oain ama aipatzen zula, aurtan ez ttit biali urtero bialtzen ttian oilasko pareaa...

– Bai, Berorre re etzen azaldu gure etxera lurrari bedeinkazioa ematera!

Apeza gorri-gorri in ta, estualdi hartatik nola ateri ez zakila, hauxe erantzuten dio goxo-goxo mutilari:

– Bai Joxe Mari, nik elizako ataritik biali nun bedeinkazioa zuen lurratara.

– Bai, nere amak e biali zittun oilaskok baserritik herrira, ez al zian alletu?



ZURE TXANDA

Luix Elizegi



Zein egoetan bizi zara?
Azkeneko zazpi urtetan alokairuan bizi naiz.

Argi a duzu herrian bizi nahi duzula?
Dударik ez.

Hori egin ahal izateko aukerak ba al daude gaur egun?

Aukera gutxi dago, nahiz etanik suerte pixka bat izan.

Zer bultzatuko zenuke denek aukerak izan ditzaten?

Herriko etxe hutsak berritu edo irtenbideren bat eman, alokairu soziala edo V.P.O ko etxeak.

Herrian bizitzeko aukerarik ez izatea zeren ondorio dela uste duzu?

Etxe faltea, lur faltea eta duenak ez du saldu nahi, eta saldu nahi duenak oso garesti.

Èpe laburretan zein irtenbide ikusten dituzazu?

Etxe hutsak berritu, herriarenak direnak.

Apuntatu al zinen V.P.O-ko azken zozketan?

Bai, eta zorrea izan nun ta etxetako bat tokatu zizian.

Èta zer iruditzen zaizu alokairu sozialean aukera?

Aukera ona iruditzen zait, norberak irabazten dudan arabera ordaintzea baita

Olaia Lekuona



Zein egoetan bizi zara?
Alokairuan daramatzagu hiru urte ia!

Argi a duzu herrian bizi nahi duzula?
Horixe baietz!!

Hori egin ahal izateko aukerak ba al daude gaur egun?

Nere ustez bai, aukeraz aparte gogo badago...

Zer bultzatuko zenuke denek aukerak izan ditzaten?

Itxe hutsei erabilpena eman, alokairua, dirulaguntzak zaharberitzeko...

Herrian bizitzeko aukerarik ez izatea zeren ondorio dela uste duzu?

Irtenbide "merkerik" bertan ez dagoela, asko ordaindu behar da hemen zerbait lortzeko.

Èpe laburretan zein irtenbide ikusten dituzazu?

Etxe zaharrak eta ezertarako erabiltzen ez direnak saltzeko bidean jartzen lagundu nagusiei.

Apuntatu al zinen V.P.O-ko azken zozketan?

Bai.

Èta zer iruditzen zaizu alokairu sozialean aukera?

Oraindik ohituta ez gauden sistema bat da baina ohitzen joaten al gara!